



MILIO BAT GEHIAGO HERRITARREN BEHARREI ERANTZUTEKO

2016ko aurrekontuak indarrean dira Udalean; herritarren ongizatea bermatzeko, ekonomia sustatzeko eta babes soziala indartzeko aurrekontuak osatu dira



SUSTAPEN EKONOMIKOA

Ekonomia indartzeko
neurriak hartzen
segitzen du Udalak



LAPATX

Lapatx ixteko konpromisoa
berretsi zuen Udalak
otsaileko plenoan

Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailetza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Parekidetasuna	943 15 79 28
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldetgia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zaborteia	943 15 18 75
Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Baigera I eta II	943 81 44 64 II / 943 81 23 89
Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

Botika txandak

ALBERDI.

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Otsailaren 2, 6, 7, 12, 18 eta 23

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Otsailaren 1, 8, 16, 22, 27 eta 28

BERISTAIN

Urbite auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Otsailaren 5, 11, 17, 24 eta 29

EIZAGIRRE

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Otsailaren 4, 13, 14, 19 eta 25

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Otsailaren 3, 9, 10, 15, 20, 21 eta 26

Ale honetan zer?

- Azpeitia ezagutzen 2
- Ander Idoeta 3
- Herri bizia 4
- **2016. urteko aurrekontuak** 10
- Guztion ongizatea helburu 17
- Motxak 18

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Diseinua eta argazkiak:
EREGLI, Euskara eta Komunikazioa


Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.

Azpeitia ezagutzen



Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez,
Azpeitiko historia ezagutzeko balioko
diguten herriko datu esanguratsuak
ikasteko aukera izango dugu
aurrerantzean tarte honetan. Ezagutu
Azpeitia, bere historia eta ondarea!



EKAINGO KOBAREN AURKIKUNTZA

1969ko ekainaren 8an, Azpeitiko
Antxieta Kultur Taldeko bi gaztek,
Andoni Albizuri eta Rafael Rezabalek,
arkeologia prospekzioak egiten ari

zirela, Ekaingo labar pinturen multzo
ederra aurkitu zuten Debako lurretan,
Zestoako hirigunetik oso hurbil.

Ekainen, lehenengo irudia, zaldiburu
handi bat, sarreratik 50 bat metrora
dago, eta azkenekoak 150 metro
baino gehiagora daude. Buru handi
hori, gangatxo baten sabaian, zuloko
bide nagusiaren aldamenetik beste bat
hasten den tokiaren ondoan dago, Ekain
batik bat zaldiaren leizea dela iragarritz
bezala. Bisontea zaldiaren osagarria da
Paleolitoko artean. Beharbada, berezko
harkaitz horrek bultzatuko zituen
leizeko apaintzaileak haitzulo hori
zaldiari eskaintzera.

Ander Idoeta, gertutik: Mugarik gabeko herritarra

Ander Idoeta Udalean ari da praktiketan; gehienbat, Udal liburutegian egoten bada ere, Loiolako turismo bulegoan eta Elikagaien Bankuan ere aritzen da



 Ander Idoeta gaztea Udal Liburutegiko harreran.

Urtaurrean ekin zion Ander Idoetak Azpeitiko Udaleko lanari. Gehien bat Udal liburutegian egon ohi da, baina ez da liburu artean bakarrik aritzen. “19 urte ditut, eta Zumaian ikasten dut”, hasi da kontatzen Idoeta. Hilabete baino gehiago darama praktiketan, eta Aste Santua bitartean, behintzat, hala ibiliko da, lanbide desberdinetako zereginetan bere burua trebatzen, hori baita institutuan ikasten duena.

Baina, orain, praktiketan ari da Azpeitiko Udalean eta gustura dago: “Ikastea eta hemen lan egitea; biak gustatzen zaizkit, ezingo nuke bat aukeratu”, azpimarratzen du.

Ordu gehienak liburutegian pasatzen ditu; astelehenetik ostiralera goizean goiz joan ohi da, eta liburutegia abian

jartzeaz arduratzen da: “Argiak piztu, ordenagailuak martxan jarri, kanpoko postontzitik liburuak jaso, liburuak ordenatu, egunkariak seilatu eta bere lekuan jarri... horiek egiten ditut beti”, dio.

“Ikastea eta
hemen lan egitea;
biak gustatzen zaizkit,
ezingo nuke
bietako bat
aukeratu”

Gero, ordea, egunero irteten du zeregin berriren bat, eta hura ere egin egin behar. Lankideekin ere ederki moldatzen

da, eta nabari da hori giroan: “Oso ondo zaintzen naute”, dio irriz.

Liburutegitik kanpoko lana

Egunero joan ohi da liburutegira, baina badu bestelako lanik ere. Ez du denborarik alferrik galtzeko. Astelehenetan goiz osoa egin ohi du Enparan Dorretxean. Baina gainontzeko egunetan, normalean, Loiolako Turismo bulegora joan ohi da, hango lanetan laguntzera: “Gustatzen zait hango lana ere”. Esku-orri eta bestelakoak bere lekuan jartzeaz gain, turistei harrera egin eta hango teknikariari laguntzen aritzen da. Eta ederki moldatzen omen da.

Baina oraindik ere izaten du zereginik Ander Idoetak. Izan ere, hilean hiru egunetan Elikagaien Bankura joaten da hango elikagaiak ordenatzen laguntzera. Elkartasunak, ez baitu mugarik.

Herriko auzoen iraganaren testigantzak galdu aurretik, liburuan jasoak

Laxaro Azkune kazetari azpeitiarrak osatu eta Udalaren Hezkuntza Sailak argitaratu berri du 'Oroimen bizia. Azpeitiko auzoak XX. mendean' liburua



 'Oroimen bizia' liburuaren aurkezpena.

Urtarrilaren hasieran aurkeztu zen Sanagustin kulturetxoan gainezka zela 'Oroimen bizia. Azpeitiko auzoak XX. mendean' liburua. Hilabeteetako lan luzearen uzta da liburua; izan ere, aurreko agintalditik datorren proiektua da, Laxaro Azkune kazetari azpeitiarrak osaturiko liburu mardula.

Liburuan herriko auzoetako historiak, bizimodua, herriko auzoak, baserriak, bizibidea eta eskolak aztertu ditu. Auzo bakoitzaren nortasuna nabarmendu nahi izan du Azkune idazleak eta auzotar sentimendua goraiatzeko ere bada liburuaren helburua.

Laxaro Azkunek bere lana "puzlea osatzea besterik ez dela izan" azaldu zuen aurkezpenean. Aurrean zituen



Liburuaren fitxa


- Izenburua: 'Oroimen bizia. Azpeitiko auzoak XX. mendean'
- Egilea: Laxaro Azkune Sudupe
- Argitaratzailea: Azpeitiko Udal (Hezkuntza Saila)
- Neurria: A5a (itxita)
- Orrialdeak: 306
- Tirada: 1.500

liburua osatzen lagundu dioten hainbat eta hainbat parte hartzailei zuzenduz, "puxkak zuek jarri dituzue, eta nik zuek kontatutakoa pixka bat ordenatzen eta itxuratzen egin dut lan. Horregatik, neurri baten, denon liburua egin dugu", azaldu zuen.

Azken urteotan, Udalak herriko iragana eta historia jaso eta gazteen artean, eta ez hain gazteen artean, zabaltzeko eta transmititzeko apustua eginda du. Ibilbide horren erakusgarri da plazaratu berri den I I auzotako bizimodua biltzen duen liburu mardula.

Liburua, eskuragarri

Liburua izan nahi duten herritarrek udaletxeko Kultura Sailean eta Belaetxe liburu dendan (Sanjuandegin) dute eskuragarri.



Leire Goenaga Hezkuntza batzordeburua

“Laxarok auzotar askoren bizipenak jaso ditu, eta hori da liburuaren altxorra”

Azken urteotan urratutako ibilbidean sakontzen dihardu Udalaren Hezkuntza Sailak; herri curriculum-a osatu eta herriaren memoriaren transmisioan eragiteko baliabideak sortzen segitzen du.

Nondik sortu zen liburua egiteko asmoa?

Aurreko agintalditik datorren egitasmoa izan da liburua argitaratzea. Azpeitian ere, eskolaz gain, norbanako, elkarte, eragile guztiok hezten dugu eta hezten gara. Heziketa denon ardura da; Udalarena zein herritar denona. Beraz, egin den lanarekin herriko ondarea transmititzeko tresna izan nahi dugu.

Liburua ibilbide baten fruitua da, baina ez lehena eta ezta azkena ere.

Herrira begira hainbat ekimen bultzatu ditu Udalak, eta horretan jarraituko dugu aurrerantzean ere. Gauzatu diren proiektuetako batzuk honakoak izan dira; Azpeitiko heziguneen katalogoa, herrian bertan ditugun hainbat baliabideei buruz informazioa jaso, ezagutu eta erabiltzeko; Azpeitia Ezagutzen, herriko ondarea ezagutzen, herriko nortasun, ezaugarri, balore, zein kultur adierazpenak jaso eta ondoren landutako materiala ikastetxe zein herritar ororen eskura jarriaz; Azpeitiko idazleak, unitate didaktikoa, literaturaren transmisioa du helburu, eta zehatz esateko literatura garaikidearen transmisioa;

Azpeitiko harrera gida, helburu nagusia Azpeitira etortzen direnak herriratzen laguntzea da, bertako ezaugarri eta baliabide nagusienak azalduz. Aipatutako ekimenez gain, ildo berean, hainbat ekimen eta proiektu berri antolatu dira Azpeitiko herrian, azken urteotan..

Zein izan da liburuaren helburua?

Azpeitia, gaur egun dena ezagutzen dugu, eta gaur egungoa bizi dugu, baina ezin dugu ahaztu dugun herria, izan zenari esker dela den bezalakoa. Azpeitiarron izaera, bertako kultura eta ohituren parte handia gure auzoetatik datorrela. Liburuan aurrera goazen heinean konturatuko gara gure nortasunaz eta kulturaz ari garela. Aniztasunetik norberaren auzoaren eta udalerriko osoaren parte garela sentitzea da liburuaren xedea.

Zein balorazio egiten duzue? Jendeak ondo hartu al du?

Balorazio ona egiten dugu, oso harrera ona izan du liburuak, batez ere, auzoetan. Liburua egiterako garaian Laxarok auzotar askoren bizipenak

jaso ditu, hori da liburu honen altxorra. Liburuak egile bakarra du, baina parte hartzaile asko.

Liburua argitaratu da, baina liburuaz gain hitzaldi eta bestelakoak ere antolatzeko asmoa duzue?

‘Oroimen bizia’ liburua, aurretik aipatu den guztia kontutan hartuta tresna bat da. Beraz, liburuaren bueltan solasaldiak egin nahi ditugu auzoetan. Liburuan dagoen edukiaren zabalpena herriko txoko guztietara egin nahi dugu, ez bakarrik auzoetara. Gure ondarea eta kultura ezagutu eta belaunaldi berriei ezagutarazteko lanean jarraituko dugu.

Liburua eskutan, zein da hasitako ibilbide horren hurrengo pausoa?

Sustraiak hobeto ezagutzea egungoa bizi eta etorkizuneko herria nolakoa egiten ari garen ulertzeko, eta oraindik eta herri hobeagoa egiteko. Herri moduan, gure komunitatea norantz bideratu nahi dugun erabaki eta oinarri horietan heztea denok elkarrekin. Bukatzeko, hezten duen herria nahi dugu izatea Azpeitia.

Bisitariei Xoxotera igotzeko bidea erraztuz

Xoxote eta Izarraitz ezagutzera emateko ibilbideak erakusten dituzten panelak jarri ditu Udalak Lagun Onak Mendi Bazkunarekin elkarlanean



 Ezkerretik hasita, Agustin Lizarralde zinegotzia, Aitor Unanue Lagun Onakeko Lehendakaria eta Aitor Bereziartua zinegotzia.

Lagun Onak Mendi Bazkunaren eta Azpeitiko Udalaren arteko elkarlana, aspaldian hasitakoa da. Azken urteotan, besteak beste, Xoxote eta Izarraitz ingurua ezagutarazi eta bisitariak mendira joatera animatzeko hainbat ekimen egin dituzte.

Azpeitia kulturak, eraikinek, bizimoduak eta inguruneak egiten du aberats. Ingurumenean interesatutako gero eta bisitari gehiago etortzen dira herrira, eta horiei hemengo aberastasuna ikusarazi eta bizitzeko aukera eskaintzeko baliabideak jartzeko helburua du Udalak.

Bide horretan, duela aste batzutatik ikusgai da hartutako asmoen eta elkarlan horren azken emaitza. Izan ere, Iturri Txiki parean, Olatz inguruan, Xoxoten

aterpetxearen aurrean eta Attolan panelak jarri dira Xoxotera igotzeko zein Izarraitz bira emateko dauden ibilbideen inguruko informazioa eskaintzeko, besteak beste.

Xoxotera igotzeko eta Izarraitz bira emateko ibilbideen inguruko informazioa eskaintzen duten lau panel jarri dira

Paneletan ibilbideen inguruko informazioa, aterpetxearen xehetasunak eta grafikak aurki daitezke. Iturri Txiki pareko panelak ez beste guztiek informazioa bi aldeetatik dute. Guztira, zazpi grafika egokitu dira informazioa ulerterraza izan dadin. Honako informazioa du panel bakoitzeko grafikoak:

- **Iturri Txikiko panela:** Puntu horretatik, Azpeitiko kaletik, Xoxoteko tontorrera igotzeko ibilbidearen inguruko informazioa aurki daiteke, besteak beste.
- **Aterpetxe aurreko panela:** Xoxotera igotzeko dauden bide guztiak (Azpeitiko plazatik, Olatzetik eta Attolatik) eta Izarraitz bira emateko ibilbidea.

- **Olatzeko panela:** Puntu horretatik Xoxotera igotzeko ibilbidearen xehetasunak eta Izarraitzi bira emateko ibilbidea.

- **Attolako panela:** Puntu horretatik Xoxoteko tontorrera arteko ibilbidea eta Izarraitzi bira emateko xehetasunak eskaintzen ditu.

Aurrekariak

Panelen proiektu hori, aurretik, duela pare bat urte, ateratako esku-orri bati lotuta doa.

Gero eta bisitari gehiago dira Azpeitia inguruko ingurumen aberastasunaz gozatzeraz datozenak, eta horientzat baliagarri izan daitezen jarri dira panelak

Izan ere, esku-orria ateratzean, oso harrera ona izan zuela ohartu ziren bai turismo bulegoa eta baita Azpeitiko Udala eta Lagun Onak Elkartea ere.

Turismo bulegoan ere gero eta jende gehiago joaten zela mendi ibilbideei galdezka jakitun, panelak egiteko proiektuari heldzea erabaki zuten. Eta orain etorri da emaitza.

Paneletakoinformazio gehiena esku-orrirako osatutako informazioatik hartutako edota egokitutakoa da.

Loiolako Turismo bulego berria hasi da fruituak ematen



2015. urteko turismo datuek gora egin dute; aurreko urteko datuekin konparatuz, %13 egin du gora erabiltzaileen kopuruak, eta abuztutik abendura artean, berriz, %24koa izan zen igoera

Turismo datu onak utzi ditu Azpeitian eta Urola eskualdean 2015. urteak. Loiolako Turismo bulegoa santutegi aurrera ematea erabaki ona izan dela erakusten dute datuek.

Izan ere, nabarmen gora egin du bulegora informazio bila joan diren bisitarien kopuruak. Uztailaren 22an ireki zen lekuz aldatuta bulegoa (orain Loiolako jardinean jarritako etxola berezi batean dago),

turistentzat ikusgarriagoa eta irisgarriago izatea zen helburu, eta lortu du jarritako helburua; bisitari gehiago erakartzea.

Iraurgi Berritzenen, Azpeitia eta Azkoitiko Udalen garapen eta berrikuntza erakundearen bidez kudeatzen duen bulegoa lekuz aldatzea apustu egokia izan da: "Abuztutik aurrera nabarmendu zen, batez ere, bisitarien igoera. Urte osoko bisitari kopuruak %13ko igoera

izan du, 2014. urteko datuekin alderatuta. Abuztutik abendura arteko bisitarien kopuruak, berriz, %24 egin du gora", Iraurgi Berritzenen arabera.

Datuetan sakontzen bada, gehienak taldean etorritakoak izan dira 2015. ean ere (%70a); hala ere, bere kabuz etorritako bisitariak aurreko urtean baino %5 gehiago izan dira (2.100 lagun gehiago).

Deustuko Unibertsitatea Azpeitira hurbildu da

Otsailaren hasieran Azpeitiko Udalak eta Deustuko Unibertsitateak hitzarmena sinatu zuten, eta abian dira lehen ikastaroak



 Azpeitian sinatu zuten hitzarmena Eneko Etxeberria alkateak eta Jose Maria Guibert Deustuko Unibertsitateko erretoreak.

Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak eta Jose Maria Guibert Deustuko Unibertsitateko erretoreak lankidetzak akordio sinatu zuten otsailaren 5ean, helduentzako bi prestakuntza programa eskaintzeko herrian: 'Kultur aisia Unibertsitatean' eta 'Ekiten eta enpresa kudeatzen ikastea'. Gipuzkoan herri bakarra da Azpeitia horrelako hitzarmen baten bidez bi programa horiek abian jarriko dituen.

Eneko Etxeberriak adierazi zuen bezala, "estrategikoa da sinatutako akordioa". Bi ideia azpimarratu nahi izan zituen: alde batetik, formazioa, "bizitza formatzea

da, nahi edo ez nahi; oharkabeen edo konstiente. Bide horretan baloreak jasotzen dira eta guk formazioaren bidez balore positiboetan formatu nahi ditugu herritarrek", azaldu zuen. Formazioa, herritarrentzat eskubidea den heinean, erakunde publikoentzat betebeharra ere badela aipatu zuen. Formazio antolatua eskaini nahi die herritarrei Udalak, "etorkizuna irabaztea" dakarrelakoan horrek. Bestetik, berriz, Azpeitia eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lotura ere aipatu nahi izan zuen: "Deusturik ez litzateke izango Azpeitirik gabe, eta Azpeitia ezingo litzateke ulertu Deusturik gabe", adierazi zuen Etxeberriak.

Bukatzeko, Deustuko Unibertsitateari berari, eta Guiberti urteetako harreman eta konfiantzan oinarrituta lortu duten hitzarmenagatik eskerrak eman zizkion.

Jose Maria Guibert Deustuko Unibertsitateko erretoreak programen inguruko xehetasunak eskaini zituen: "Bi programa horiek Deustuko Unibertsitateko DeustoBide Herriartasun Eskolak antolatzen ditu, gizarte topaketak sustatzeko eta herritarren zentzu kritikoa eta parte hartzailea sustatzeko, elkartasunean oinarritutako bizikidetzaren eredu eraikitze bidean", azaldu zuen, Deustuko erretore azpeitiarrak.

Kultur aisia programa

'Kultur aisia Unibertsitatean' programa prestakuntza programa irekia da, beren kultur esparrua zabaldu nahi duten pertsonen zuzendua: "Adin guztietako pertsonen egin dezakete eta ez da aurretiazko titulurik eskatzen".

Gizakiaren balioetan oinarritutako aisia sustatu nahi du, "prestakuntza ere aisia dela aldarrikatuz eta aisiak norberaren garapenean eta gizartearenean eragina duela azpimarratuz" adierazi du Guilbertek. Kultura gozatuz ikastea du helburu eta kultura eta jakintza hedatzea. Azpeitiko Udalarekin adostutako programaren baitan, hiru ikastaro eskainiko

dira, bakoitza 12 ordukoa: 'Euskal mitologia eta kristautasuna', 'Udaberriko arratsalde baterako musika', eta 'Kulturak, identitateak eta lurraldeak'.

Euskal mitologia eta kristautasuna. Saioak otsailaren 24an, martxoaren 2an, 9an eta 16an eta apirilaren 6an eta 13an izango dira, 16:00etatik 18:00etara.

Musika udaberriko arratsalde baterako. Apirilaren 20an eta 27an zein maiatzaren 4an, 11n, 18an eta 25ean izango dira saioak, 16:00etatik 18:00etara.

Gu eta besteak? Kulturak, identitateak eta lurraldeak gizarte globalean. Urriaren 19an eta 26an eta azaroaren 2an, 9an, 16an eta 23an izango dira eskolak, 16:00etatik 18:00etara.

Ikastaroetan izena eman nahi dutenek udaletxean edota

Udal liburutegian eman dezakete zuzenean.

Bestela, ikastaroak@azpeitia.eus e-posta elektronikoaren idatz daiteke.

Ekiten eta enpresa kudeatzen ikasteko programa

'Ekiten eta enpresa kudeatzen ikastea' programak lantegiak, eskainiko ditu, berriz, beren enplegarritasuna, lan egoera edo negozioa hobetzea helburu du-

ten pertsonen enpresa kudeaketako oinarriko tresnak eta jardunbideak.

Programa hau lau lantegik osatzen dute, bakoitza 16 ordukoa, hainbat interes arlo lantzeko.

Hona lau lantegiak: 'Ideiatik negozio planera', 'Finantza kudeaketa finantzetan adituak ez diren entzat',

'Negozioaren garapenerako ezinbesteko tresna digitalak', eta 'Enpresari lotutako lege alderdia'.

Ideiatik negozio-planera tailerra.

Otsailaren 23an eta 25ean eta martxoaren 1ean, 3an, 8an, 10ean, 15ean eta 17an izango dira eskolak, 14:30etik 16:30era.

Finantza-kudeaketa finantzari ez diren entzat tailerra.

Apirilaren 5ean, 7an, 12an, 14an, 19an, 21ean, 26an eta 29an izango dira saioak, 14:30etik 16:30era.

Behar-beharrezko tresna digitalak negozio bat garatzeko tailerra. Maiatzaren 3an, 5ean, 10ean, 12an, 17an, 19an, 24an eta 26an izango dira eskolak, 14:30etik 16:30era.



Ekonomiari, babes sozialari eta herritarren beharrei erantzuteko aurrekontuak

Azpeitiko Udalak 2016. urtean, ia milioi bat euro gehiagoko aurrekontua izango du herritarren beharrei erantzuteko

2016ko aurrekontuak onartuta eta indarrean ditu Azpeitiko Udalak. Beraz, 2016ko lan egiteko oinarriak ezarrita daude.

Aurrekontu bateratua, Udalarena, Kirol Patronatuarena, Euskara Patronatuarena eta Azpeitia Berritzen baltzuen kontuak biltzen dituena, 19.233.516 eurokoa izango da, Udalararen aurrekontua berri, 18.154.684,72 eurokoa. "Iaz baino milioi bat gehiago izango dugu, beraz, jauzi handia ematen dugu. Aurreko agintaldian garai zailak izan ondoren, aurreko sarrera aurreikusten ditugu. Baiorrago egoteko arrazoiak ditugu, baina beti ere, zuzentzen", agertu du Ogasun batzordeburu, Estitxu Elduainenek.

Aurrekontuak osatzeko prozesuak hiru hanka izan ditu; mahai tekniko-politiko, Azpeitia 2015 Plan Estrategikoa eta Denon Artean herritarrekin egin ohi den parte-hartze prozesua.

Hanka guztietatik jaso dira ekarpenak, baina Denon Artean prozesuan baita izandako herritarren parte-hartzea nabarmentzeko da: "130 ekarpen inguru jaso ditugu, 100 herritar baino gehiagorekin bildu gara... prozesua egonkortzen ari dela erakusten du, herritarrek bileretan parte hartzen eta ekarpenak egiten jarraitzen baitute", gaineratu du.

Modu honetan, 2016ko aurrekontuek

ekonomia, babes soziala eta herritarren beharretara egokituak azpiegitura jasagarriak izango dituzte lehentasunak, baina sei oinarriekin osatuta daude hiru hanka horiek. Hauek dira aurrekontuen Sei oinarriak:

- **Ekonomia**
- **Babes soziala**
- **Hirigintza eta ingurumena**
- **Eraginkotasuna**
- **Nortasuna duen herria**
- **Bizikidetzatza**

Horiek helburu dituela egingo du Azpeitiko Udalak lan; beti ere herritarren ongizatea eta elkarlana helburu izanda.

2016. urteko Udal aurrekontua

Ogasuna eta kontuak	796.345,34 €
Hirigintza eta ingurumena	3.146.500 €
Hezkuntza eta euskara	984.780,02 €
Kultura eta gazteria	767.800 €
Kirola	827.226,94 €
Gizartekintza	976.900 €
Langileria eta antolakuntza	5.481.300,39 €
Festak	495.000 €
Zerbitzu orokorrak	3. 324.073, 56 €
Alkatetza	221.000 €
Industria merkataritza eta tursimoa	845.858,47 €
Parekidetasuna	113.900 €
Baserriak	174.000 #
GUZTIRA	18.154.684,72 €





Ekonomia

Urteotan ekonomia suspertzeko Azpeitiko Udalak egin dituen indarrak eta jarritako baliabideak ari dira bere fruituak ematen, eta horretan jarraituko du. Bide horretan, apustua formazioan eta sustapen planean egiten segituko du.

Horretaz gain, Iraurgi Berritzen Garapen agentziaren bidez herritarrei eskaintzeko baliabide eta proiektuak ere indartuko ditu. Horretarako 309.360 euro bideratu ditu Udalak.

Formazio arloan pauso garrantzitsuak eman ditu Udalak azken urteetan, bere

egiazko titulazioa duten ikastaroak eskainiz, eta emaitza onak lortu ditu. Horrekin batera, 3. adinekoen zaintzari lotutako ziklo formatiboa Azkoitian eskainiko da irailetik aurrera Udalak arlo horri lotutako ikastaroak Azpeitian eskaintzeko azken urteotan egindako lanari esker.

Unibertsitateekin ere aliantza estrategikoak bilatzeko lanean ari gara. Horren adibide da Deustuko Unibertsitatearekin sinatu berri dugun ikastaroak eskaintzeko hitzarmena. Hitzarmen horren bidez, datozen urteotan unibertsitate horrek herrian ikastaroak eskaintzeko bidea ireki du.

Langileentzat etengabeko formazio eskaintza eskura jartzeko aukerak ere aztertuko ditu Udalak.

Enplegu sustapena

Bestetik, azpeitiarren lehenetasuna enplegua dela jakinik, oinarri eta apustu berriei sustapen plan berezia abian jarriko dugu, azpeitiarrek kalitatezko enpleguak lortzeko helburuarekin.



Enplegu planarekin segitzearekin batera, ordea, langabetuentzat arreta hobetu nahi da. Hala, Gizarte Zerbitzuen Departamenduarekin elkarlanean une zailak jasaten ari diren herritarren beharrei hobeto erantzuteko ahalegina egingo du.

Horretaz aparte, langabetuak ezagutu, aurpegia jarri eta tutorizazioa eskaini nahi zaie, egoera horretatik irteteko irtenbidea bilatzeko.



Babes soziala

Azpeitiarren babes eta justizia soziala lehenetasuna dira Udalarentzat. Horretarako, ezinbestekoa da Gizarte Zerbitzu Sailaren gardentasuna lortzea. Herritar orok jakitea gizarte zerbitzuetako laguntzak zeintzuk diren, eta laguntza horiek jasotzeko baldintzak zeintzuk diren.

Horretaz aparte, laguntzak herritarren beharretara egokitzen joateko

konpromisoa ere badu Udalak. Hala, eskaintzen diren zerbitzuak eta baliabideak balioan jarri eta ezagutarazteaz gain, berraztertu eta beharren arabera aldatzen edota indartzen joango da.

Udalak herritarren beharrei egokiago erantzuteko sare soziala sortu eta indartzeko asmoa ere badu. Bide horren bidez, gizarte indartu eta herritarren arteko lankidetzak bultzatzeko.

Etxebizitza eskubidea

Azken urteotan 160 gazte inguruk jaso dute etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko diru-laguntza. 2015ean ere 68 lagun izan dira onuradunak. Iaz, gainera, oinarriak aldatu eta kolektibo gehiagorengana iriki zen laguntza; ezinduak, banaduan, adinekoak... Bide horretan segituko du Udalak lanean.





Hirigintza eta ingurumena

Azpeitiko Udalak asmo ugari ditu hirigintza proiektuen inguruan. Beti baitago ideia berrien bat edota hobetu beharreko zerbait herritarrei Azpeitia hobeago bat eskaintzeko.

Igerilekua

Energia aurrezteko bideari ekin zion Udalak igerilekuan proiektu berritzaile bat abian jarrita. Bide horretan, energia aurrezteko eta jasangarritasuna

bermatzeko lanean segituko du. Itxuran baino gehiago sakonduko du igerilekuak energia aurrezteko proiektuetan.

Berdura plaza

Plaza, bere osotasunean, ari da benetako itxura hartzen. Plazako lurzorua obrak bukatuta eta berdura plazako eraikina bera bukatzeaz dira. Hilabete gutxi barru bukatuko da berdura plazako eraikina, eta bertan zer egin nahi den hausnartu eta hitz egiteko Udala ari da eragileekin hitz egin eta bilerak egiten.

Gune berdeak

Azpeitiak herritik oso gertu ditu zelai eta ingurune berdeak. Udalak, ordea, gune berde horietaz gozatzeko proiektuak jarriko ditu abian. Gune berdeak osatzeko proiektuak gauzatuko ditu esklabetan eta Goenan. Herritarrei inguru berdeez, lasaitasunez gozatzeko aukera ere eskaini nahi die Udalak.

Horretaz gain, herrian gaur egun dauden gune berde, parke, zuhaitz eta basoek behar dituzten zaintza eta mantenu lanak egiten segituko du.

Etxebizitzak

Azpeitiko etxebizitzaren inguruko azterketa sakona egingo du 2016. urtean Azpeitiko Udalak. Azterketa horren bidez herritarren iritzia jasotzea nahi da, beharren arabera proiektuak egiteko.



Eraginkortasuna

Etengabeko hobekuntzan sinesten du Azpeitiko Udalak, eta udaletxea bera efizienteagoa izateko pausoak ematen jarraituko du.

Antolaketa

Udal barruko antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko neurriak hartuko dira, herritarrei zerbitzu hobeagoa eta errazagoa eskaintzeko helburuarekin.

Leihatilla bakarra programa ere jarriko da abian eta gardentasuna lantzen jarraituko du.

Parte hartzea

Horretaz gain, webgunea berrituko da atal berezituak sortuz eta herritarren partaidetza sustatuko da bide horren bitartez ere.



Herri nortasuna

Azpeitiko Udalak herri bezala Azpeitian duen nortasuna babestu eta landu beharrezkotzat jotzen du. Hori baita beste herrietaz bereizten gaituena. Eta horrek ematen dio indarra herriari. Bide horretan, ezinbestekotzat jotzen du elkarlana Udalak. Herria guztiok osatzen dugulako, eta herriari izaera ere denok ematen diogulako.

Kultura

Kultur dinamika bizia eta indartsua du Azpeitiak. Kultur talde ugari dago, eta denak biltzen dituen Kultur Mahaia dago, herri ikuspegia landuz kultura sustatzeko. Aurten, Soreasuren etorkizuna zehazteko hausnarketan jarraitzea du helburu Udalak. Hori ezinbestean Kultur Mahaiarekin eta herriko norbanako eta eragileekin egin beharrezkotzat jotzen da.

Horretaz aparte, kultur dinamika indartzeko eta aberasteko lanean segituko du Udalak.

Euskara

Herri euskalduna da Azpeitia; baina, hala ere, ezin dugu erlaxatu, herri euskaldunagoa izateko lanean jarraitu behar da. UEMAko kide da Udala, eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin jarraituko du herria euskalduntzeko pausok ematen.

Arnasgunea da euskararentzat gure herria. Eta arnaspune gisa zaindu behar dugu. Aberatsak gara hizkuntzari dagokionez, baina aberastasun hori zaindu eta balioan jartzeko lanean segituko behar dugu.

Baliabideak jartzen jarraituko du Udalak euskaraz ikasi nahi duenak edo hobetu nahi duenak herrian bertan aukera izan dezan; herritarrak ahalmentzea baita helburua.

Hezkuntza

Aurreko agintaldian hasitako bideari segida emango zaio hezkuntzaren arloan. Herriko curriculumak lantzen segitzeko proiektuak aztertu eta landuko ditu.

Hezigune integralak, hezkuntza alor guztietara zabaltzea bultzatuko du, eta ahalegin berezia egiten jarraituko etengabeko formazioa bultzatuz.

Horretaz gain, herrian ditugun hiru ikastetxeen arteko elkarlana sustatzen jarraituko du..

Gazteria

Herriko gazteei egiten zaien eskaintza aztertzea du helburu Udalak. Hala, hutsuneak eta gabeziak detektatu eta hobekuntzak egiten joatea da asmoa.

Azken urteotan gazteak lokaletan biltzen dira. Udalak duela zenbait urte lokal horien erabilera arautzeko ordenantza onartu zuen, baina berraztertu beharra ikusten du. Bide horretan, ezinbestekoa ikusten da gazteekin Udalak duen elkarlana sendotzea eta elkar ulertuz lokalen araudia zein bestelako aukerak aztertzea.

Kirola

Herrian askotariko kirolak egiten dira askotariko eragileek bultzatuta edota bakarka. Bide horretan, ezinbestekoa da Udalaren eta eragileen arteko elkarlana, eta hori indartzea izango da erronka nagusia.

Horretaz aparte, ordea, diru-laguntzen araudia eguneratzeaz gain, azpiegituren berrazterketa eta optimizazioa eta kirola eta osasuna lantzea ere izango dira 2016ko erronkak.



Bizikidetza

Bizikidetza eta oroimena lantzeko bidea hautatu zuen Azpeitiko Udalak duela urte batzuk.

Bide hori Aranzadi elkartearekin lanean hasi zuen, eta urte guzti hauetan

egindako lanak pena merezi izan du, Azpeitia eta azpeitiarren memoriaren berreskurapenean egin den lana dela eta.

Elkarlan horretan jarraituko du Udalak. Azterketa berriak egingo dira eta egitasmo berriak abian jartzea ere aurreikusten du Udalak.



Herritarren ekarpenak,



Denon Artean

Herritarrek 130 ekarpenetik gora egin dituzte 2016. urteko aurrekontuak osatzeko prozesuaren baitan

denon artean parte hartze prozesuaren baitan, aurren ere herritarren ekarpen ugari jaso ditu Udalak 2016. urteko aurrekontuak osatzeko. Dagoeneko, herritarrek badakite zein den prozesu horretan parte hartzeko prozedura, eta gero eta errazagoa da Udala herritarrekin elkarlanean aritzea.

Hala, aurren, herrian jarritako postontzi eta e-posta elektronikoko bidez 130 ekarpenetik gora jaso dira. Udalak jaso, irakurri eta kontuan hartu ditu guztiak.

Baina bide horretaz gain, bilerak ere egin dira; herritarrentzat bilerak irekiak egin ziren. Arlo ezberdinetan antolatuta dauden eragileekin ere egin dira bilerak aurrekontuak lantzeko asmoz, eta auzoetan ere egin ziren bilerak.

Auzoetan, auzoalkateek egin ohi dute auzotarren eta Udalaren arteko zubi lana. Aurrekontuak lantzeko auzoetan ere egin dira bilerak, eta udal ordezkariak joan ziren irizpideak azaldu eta auzoen beharrak bertatik bertara ezagutzera. Hala, han ere aurtengorako egin beharreko hobekuntza eta bestelako proiektu edota asmoen berri izateko aukera izan zuten.



Lapatx ixteko konpromisoa berretsi du Azpeitiko Udalak

Otsaileko plenoan, urgentziazko gai gisa tratatu zen Lapatx zabortegiaren inguruko gaia; aurreko egunean, Urola Erdiko Mankomunitateak itxiera berretsi zuen



Otsaileko ohiko plenoan, egoerak horrela eskatzen zuela ikusita(aurreko egunean berretsi zuen Urola Erdiko Mankomunitateak Lapatx betetzeari ixteko erabakia), Lapatx inguruko gaia lantzea erabaki zen aho batez. Argiada Udalaren iritzia: Lapatx behin betiko ixtea izango da lehentasuna.

Hala ere, Mankomunitatean hartutako erabakiaren aurrean bestelako planteamendurik badago, Udalak herritarrei emango die hitza, eta herritarrek erabaki beharko dute zer egin. Herritarrek izango dira Udalaren erabakia blindatu edota aldatuko dutenak.

Urte luzeetako kontua da Lapatx inguruko itxiera. Aspaldi beharko luke itxita, baina arrazoi ugari medio, oraindik ere irekita jarraitzen du. Beti agertu izan da beste interesen bat. Beti dago arrazoiaren bat Lapatx irekita izateko.

Eneko Etxeberria, alkateak azaldu zuen errealitatea: "Gipuzkoako zabortegi bakarra da Azpeitiko. Beste zabortegiak (San Markos, Urteta, Sasieta...) itxi egin dituzte arrazoi politikoak medio,

kaltea eragiten zietelako bizilagunei edo molestatu egiten zutelako. Orain, insolidarioak izateaz akusatzerat atrebitzen dira. Momentuan, Gipuzkoa osoko zaborrak jasotzen ari gara, eta zabor turismo garbia jasaten dugu".

Lapatx inguruko itxiera ordenatua egiteko aukera eman da: "Guretzat genuen lekua, Gipuzkoa osoari utziaz elkartasun keinua egin nahi izan dugu. Elkartasuna letra handiz, ez hitzez. Eta espero dugu kontuan hartuko dela".

Urola Erdiko Mankomunitateak Lapatx betetakoan ixtea erabaki ostean, Azpeitiko Udalak zabortegia ixteko bere konpromisoa berretsi zuen plenoan

Bi eskubideren arteko talka irudikatzen du Etxeberriak: "Gipuzkoarrena, hau da, ekonomikoa, zaborraren tasa ahalik eta merkeena izatea bilatzen duena; eta azpeitiarrena, osasuna eta aire garbia izateko eskubidea. Bi eskubide horien talkan azpeitiarren osasuna, gipuzkoarren poltsikoaren aurretik dago".

Oraindik ere Lapatx handitzeko egon daitezkeen tentazioen aurrean garbia da erabakia: "Guk politika egiteko moduak defenditzen ditugu. Guretzat ez da nahikoa lau urtean behin bozkatzea. Beraz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsultaziorik Mankomunitateak erabakitakoaz aparte bestelako asmo edota planteamendurik badu, publiko egiteko eskatzen diogu. Eta erabaki hori, azpeitiarrok, guztiok, hartuko dugu". Lapatx Azpeitiarentzat estrategikoa da, eta erabaki hori bulego batean erabakitzerik ez dagoela uste du Udalak.

Mankomunitatean hartutako erabakia betetzea bermatuko duen beste biderik ez dagoela uste du Etxeberriak: "Erabakia ez dela errespetatuko ikusten badugu, herritarrek erabakiko dute. Beraiek aldatu edo blindatuko dute gure posizioa". Irekita gelditzen da galdeketa egiteko bidea.

186 proiektu lagundu dira Sustapen Planaren bidez

2013. urtean jarri zuen abian Sustapen Plan propioa Azpeitiko Udalak langabeziari aurre egin eta ekonomia indartzeko helburuarekin

Udalak 2013an jarri zuen abian Sustapen Plan propioa, ekonomia sustatzeko ahalegina eginez, orduko egoera zailari aurre egin eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko helburuarekin.

Ordutegieratik, urteroko aurrekontuetan 350.000 euroko partida bideratu izan du herriko ekonomia suspertzeko plan propioa. Horri esker, 186 eskaera edo proiektu lagundu ditu azken hiru urteotan.

2015ean, balorazio positiboa

2015. urteko Sustapen Planaren balorazioa "oso positiboa" egin dute. Eta 2016. urteko plana abian jarteko lanean dihardute, martxoan hasi nahi baitute aurtengoarekin.

2015. urteko datuak argitaratu ditu Udalak. Iaz 28 kontratazio sustatu eta 74 proiektu lagundu ziren plan horren bidez. Estitxu Elduaiek azaldu duenez, "zaila da zuzenean plan honen bidez



zenbat lanpostu diren kalkulatzeko, baina datu objektiboa da 2013ko abendutik 2015eko abendura langabezia tasak 3, 59 puntu egin duela behera Azpeitian".

Eneko Etxeberria alkatearen hitzetan, lanpostu duinak sortzea da helburua: "Udalaren erronka da langabeziari aurre egitea, eta horren aldeko apustua egin dugu".

I. Berritzenen Sustapen Plana
Plan propio horrez gain, Iraurgi

Berritzenen bidez beste sustapen plan bat ere badu abian Udalak. 150.000 euro bideratzen ditu Udalak plan horretara eta iaz, 49 proiektu lagundu ziren horietatik 30 Azpeitikoak izan ziren. Autonomo txikiak zein enpresa handiagoak lagundu dira diruz, besteak beste, Muebles y sectores Nueva Linea (Azkue zena), Tecnicur...

2014an jarri zen abian Iraurgi Berritzeneko Sustapen Plana eta bi urteotan 84 proiektu lagundu ditu diruz.

Etxeak alokatzeko laguntzak, 68 herritarrei

azpeitiko Udalak 68 laguni eman zien etxebizitza alokatzeko diru-laguntza iaz. Horietatik 52, 18 eta 35 urte bitartekoak dira; 8, bananduak; eta beste 8, 70 urtetik gorakoak.

2014an jarri zuen abian Udalak laguntza berezi hori, etxebizitza politika berriak garatzeko asmoz, eta bi urteotan 115 herritarrek jaso dute. Laguntzen helburuak Agustin Lizarralde zinegotziak azaldu ditu: "Alokairua

ordaintzeko arazoak dituztenei laguntza ematea, etxe hutsak merkaturatu eta alokairua sustatzea eta Alde Zaharra biziberritzeko beste pauso bat ematea".

2014an, 18-25 urte arteko gazteei zuzendu zitzaizkien laguntzak; iaz, ordea, kolektibo berriei ere zabaldu zitzaizkien aukera, premia zegoela ikusi zuelako Udalak. Hala, 70 urtetik gorako pertsonak, bananduek eta ezintasunen bat dutenek ere laguntza jaso dezakete.

150.000 euro bideratu zituen Udalak iaz alokairuko laguntzetara, eta 2016an ere beste horrenbeste egingo du.

Aurtengo laguntzak udaberri alderako aterako dira. Horretarako, dagoeneko, lanean ari da, oinarriak berrikusi eta ahalik eta egokien fintzeko. Lan hori bukatu bezain pronto egingo da laguntzak eskatzeko deialdia. Gainera, aurtun, laguntzen zenbatekoa diru-sarreraren arabera banatuko da.



Arazo txikiei irtenbidea emateko hainbat obra egin dira Alde Zaharrean

alde Zaharrean sortzen ziren hainbat arazori irtenbidea emateko lanak egin dira azken asteotan. Gehien bat Perez Arregi Plazan eta Plaza Txikian egin dira obrak.

Plaza Txikia

Otsailaren hasieran egin zituzten Plaza Txikian euri urak ondo jasotzeko obrak. Galtzada-harriaren formak eta ura bideratzeko jarritako sareta edo rejilaren arteko ertzak gero eta handiagoak ziren. Arriskutsu gertatu aurretik, obra egin

eta euri ura egokiago bideratzeaz gain, harrien arteko ertzak ere konpontzeko neurriak hartu ziren.

Orain artean, euri urak bideratzeko kanal edo erreten bat zegoen lur azpian.

Egindako obren bidez hodia sartu da, horrela ura hobeto zuzentzeko. Lurzoruan, berriz, lehen baino lau sareta gehiago jarri dira ura jasotzeko, eta malda txiki bat ere egin da urari bidea errazteko.

Perez Arregi Plaza

Perez Arregi plazan, hainbat konponketa lan egiteari ekin zioten otsailaren hasieran. Herriar baten eskaeratik abiatuta, zuhaitzen oinarriko burdinak kendu eta oinarria 1,20 metrora egokitu zaie.

Horretarako, aurrez inguruko bizilagunekin bilera egin zuen Udalak, eta zuhaitz guztiak mantendu eta neurri horiek hartzea erabaki zen. Plaza horretan bertan hondoratzen ari ziren piboteak ere konpondu dira.



Landa eremuko segurtasuna indartu eta seinaleak berritu dira

Landa eremu zabala du Azpeitiak, eta bertako bizilagun eta bisitariei bizitza pixka bat erraztu asmoz, azken asteotan hainbat neurri hartu dira. Hala, Aratz Erreka, Urrestilla, Mantxinbenta ta Lasao auzoetako hainbat baserri bideetan segurtasun hesiak ipini dira segurtasuna bermatzeko. Modu honetan, 150 metro bionda jarri dira guztira eta hesiak jartzeko lanek 10.000 euro inguruko kostua izan dute.

Horretaz gain, hainbat baserriarako bidea seinalizatzeko jarrita dauden egurrezko seinaleak puskatuta eta zahartuta zeuden. Hori horrela, Azpeitiko landa eremuko seinale guztiak errepasatu dira, eta konpontze edota berritzea komeni dela ikusi den kasuetan horrela egingo da (horretan ari dira dagoeneko). Guztira 60 bat seinale konpontzea aurreikusi da, eta 5.000 euroko aurrekontua du proiektuak.

Plax! bikote eta sexu zerbitzua, indartuta



Izan duen harrera ikusita, Azpeitiko Udalak Plax! bikote eta sexu aholkularitza zerbitzua indartu, eta aurrez aurreko kontsultetarako zerbitzua zabaldu du. Hemendik aurrera, hilean asteazken arrats batean eta zapatu goiz batean izango da zerbitzu honen aurrez aurrekoetarako aukera.

Horretaz gain telefonoz (688 89 79 20) eta Internet bidez (Udalaren webgunetik: www.azpeitia.eus/sexu) ere kontsultak egiteko aukera dute herritarrek.

Emakumeak, lasterka eta pilotan



Udalaren Parekidetasun eta Kirol saiak antolatuta emakumeentzako bi kirol eskaintza berri jarri dira abian. Alde batetik, 10. urtez jarraian, lasterketa egiteko programa jarri da abian, eta bi talde osatu dira (goizean lasterka egiteko zein arratsaldean egiteko). Bada korrikarako afizioa gurean. Horren adibide da urte hauetan 160 emakume inguruk hartu dutela parte programa horretan. Aurtengoan ere 10 lagunetik gora daude izena emanda, baina nahi duenak eman dezake oraindik izena. Beste aldetik, berriz, iaz izandako arrakasta ikusita, aurtengoan ere 'Emakumeak Pilotari' ekimena antolatzea erabaki du Udalak, emakumeak pilotara gerturatzen jarraitzeko, hemen ere 10 lagunetik gorako taldea osatu da, eta otsailaren bukaeran ekingo diote.

Liburuak jasotzeko postontzia

Azpeitiko Udal Liburutegiak ahalik zerbitzu zabalena eta hoberena emateko urratasak ematen jarraitzen du, eta, hala, zerbitzu berria jarri du abian. Liburutegia itxita dagoen orduetan herritarrek liburuak itzuli ahal dituzte eraikinaren kanpoaldean jarri den buzoiaren bitartez.

Buzoi berriarekin, liburutegiko erabiltzaileei erraztasunak ematea nahi du Udalak, baina modu egokian erabiltzeko deia egin nahi da. Liburutegiak bere ordutegia du eta buzoi ordutegitik kanpo, hau da, liburutegia itxita dagoenean erabiltzeko da. Orain artean, postontziaren balorazio positiboa egin dute Udal Liburutegikoek, eta erabiltzaileek ere harrera ona egin diotela zerbitzu berri horri azpimarratu nahi izan dute.



kirola eta osasuna



Kirol Medikuntza Zerbitzua, kirola egitean ere osasuna zaintzeko

Prezio bereziak Kirol Patronatuko bazkideentzat

* Kontsultan kirol patronatuko bazkide txartela eta NANA aurkeztu behar dira

ELIKU ZENTROA - 943 81 66 58 Sendagilea: Alberto Garai

FROGA MOTAK

TARIFAK

1. Mota: Azterketa-Medikoa	U.K.P bazkideak: 45€ Kirol klubak: 40€
2. Mota: Esfortzu-Proba. Kirol azterketa medikoa	U.K.P bazkideak: 84€ Kirol klubak: 68€
3. Mota: Laktato-Proba. Kirol azterketa medikoa	U.K.P bazkideak: 115€ Kirol klubak: 100€

UROLA ZM - 943 15 07 06 Sendagilea: Francisco Dávila

FROGA MOTAK

TARIFAK

1. Mota: Azterketa-Medikoa	U.K.Pren bazkideak eta kirol elkarteak: 37€
2. Mota: Esfortzu-Proba. Kirol azterketa medikoa	U.K.Pren bazkideak eta kirol elkarteak: 48€
3. Mota: Laktato-Proba. Kirol azterketa medikoa	U.K.Pren bazkideak eta kirol elkarteak: 80€

Gehigarria 30,00€koa (odol analisia, kirol-praktikara zuzendua), beste motetako azterketekin elkartuz gero.

